

DROGETEN

ITURRI

Ermuko eta Mallabiko aldizkaria. 308. zenbakia. 2022ko otsaila

**Hartza bere
leizetik kanpo**



HARTZAREN EGUNA

Zatoz leko jantzita!



Otsailaren 25ean
18:30ean
Santixapeko iturrian

ANTOLATZAILEAK:



LAGUNTZAILEAK:



Ugaro

asesores

- AHOLKULARITZA FISKALA
ETA KONTABILITATEA
- LAN AHOLKULARITZA
- AHOLKULARITZA JURIDIKOA



Agente eksklusibok:

Allianz 
Seguros

ARGITARATZAILEA:

Euskal Birusa
Elkarte Kulturala.

HELBIDEA:

Erdikokale zeharbidea 2, 1.
247 posta-kutxa
943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com
www.euskalbirusa.eus

ERREDAKZIO TALDEA:

Estibalitz González,
Eneko López,
Nahia Ruiz Albizuri,
Jon Saez,
Libe Solozabal
eta Dorleta Vidal.

KOORDINAZIOA**ETA MAKETAZIOA:**

Dorleta Vidal.

AZALEKO ARGAZKIA:

Euskal Birusa.

LAGUNTZAILEAK:

Patxi López,
Juan Carlos Martín,
Valentín Mugarza,
Ongarai Eskola
eta Iraide Urresti.

ARGAZKIAK:

Fernando Aranberri,
Koldo Aranberria,
Asier Arenas,
Óscar Blanco, ...eta kitto!,
Alex Fernández, Santi Fuertes,
Estibalitz González,
Silvia Hernández,
Valentín Mugarza,
Nahikari Elkartea,
Ongarai Eskola,
Nahia Ruiz Albizuri,
Ekhi Velar
eta Dorleta Vidal.

PUBLIZITATEA:

943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com

INPRIMATEGIA:

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:

Alazne Goikoetxea,
Piedi Eizagirre
eta Mohamed Hdidou.

TIRADA:

2.425 ale.

ISSN:

1133-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-213/1994.

*Drogeteniturrik ez du
bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako
iritzien erantzukizunik.*

Bertoko kantuak

Herritarron ahotik

Gaia: aratusteak

Angel Markano jauna

(Entzuteko: www.alboka.es)

Angel Markano jauna
degu pilotua,
gazte-gaztetatikan
estudiatua,
harek hartzen dabenian
martxa direktua
laister izango gera
Amerikatuak.
Txa txa txakatxatxa txa txa!

Guk ez degu izango
gauza hoberikan,
bixar ondo armosau
goixian-goixetikan,
ez degu eramango
barrutik hotzikan
bildur gabiaz juateko
laiñuaz goitikan.
Txa txa txakatxatxa txa txa!



Hilabete honetan...

GURETIK MUNDURA	4	KIROLZALE	15
Alex Fernández (Granada)		Santiago Fuertes korrikalaria	
ELKARRIZKETA	5-7	ELKARRIZKETA	16-17
Axier Arenas Leyaristi, San Lorentzoko bizilagunen batzordeko laguntzailea		Iosu Arraiz, Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateko presidentea	
MALLABIAN ZER?	8-9	IRITZIA.....	18
Nahikari Emakumeen Elkartea		Atxikimendu desantolatua (Juan Carlos Martín)	
MOTZEAN	10-11	BOTEPRONTOAN	19
Zuhaitz eguna burutu zen		Yesenia Leiro	
ERMUAN ZER?	12	ANTZINAKOAK	20
Hartza Egunaren denbora-pasak		Ermuko eta Mallabiko argazkiak	
ESKOLEN TXOKOA.....	14	ZORION-AGURRAK.....	21
Ongarai Eskolako berriak		Saldu, erosi edo agurtu	
		MARTXOKO AGENDA ..	22

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Alex Fernández

Burgosera joan zen duela hiru urte Gizarte Hezkuntza ikastera, baina azken urte eta erdia Granadan igaro du Alexandra Fernández ermuarrak, SICUE programari esker. Han burutu ditu ikasturte bat eta praktikak ere. Burgosera bueltatu berri den arren, Andaluziara bueltatzeko desiratzen dago.

- Erabaki erraza izan zen Burgosetik Granadara joatea? Bai, beldur apur bat neukan, baina nire ametsa zen Granadan ikastea. Ezin izan nuen karrera bertan ikasi, ez neukalako nota nahikoa, baina aukera suertatu zitzaidanean, aprobetxatu egin nuen, COVID-19 garaia izan arren.

- Nola imajinatzen zenuen leku hura?

Andaluzia bezala: jende oso irekia, kalean abesten, eguraldi ona...

- Eta espero zenuen bezalako da?

Alde batetik bai, baina sorpresa sak ere hartu nituen. Ez nekien zer zen Alhambra, eta ikustean harriritu geratu nintzen. Gainera, hiriak beste alde batzuk ditu: Albaicín auzoa, esaterako, arabiarren eragin handia duena. Leku guztietako jendea

bizi da bertako kobazuloetan, pentsaera oso irekia dute, zoragarria iruditu zitzaidan! Sacromonte auzoa ere aipatuko nuke, ijitoen auzoa. Oso leku hippya iruditu zait, nire estilokoa, eta asko gustatu zait. - Hizkuntzari dagokionez, egon da zerbait atentzioa eman dizuna?

Lehen astean kostatu zitzaidan ulertzea, esaera propioak dituztelako. Baina segituan ohitu nintzen, eta haiek bezala hitz egiten hasi.

- Janariari dagokionez, zerbait berezirik probatu duzu? Ez, ezer berezirik. Baina esparru horretan *tapen* kontua nabarmenduko nuke. Garagardo bat eskatu, eta bazkalduta bukatzen duzu!

- Eguraldia...

Eguzkiak distira egiten du eguneroko, baina kontraste handiko



Alex Fernández Alhambratik ateratako argazki batean. Atzean, Albaicín auzoa.

lekua da: martxotik aurrera beroa hasten da egunez, baina gauetan hotza egiten du. Eta neguak oso hotzak dira.

- Non egin dituzu praktikak?

Aurreko urtean umeekin egin nuen lan, Almanjajarren, ijitoen auzoan; aurten GKE batean egon naiz, emakumeekin.

- Zer egiten zenuen denbora librean?

Saiatu naiz denetik egiten: hondartzara joan, lekuak bisitatu, kanpinean joan, eskalatu...

- Zerbait bota izan duzu faltan?

Familia eta, batez ere, lagunak: haiek ere nire familia dira. Nire txakurra ere, mendia...

- Ermura bizitzera bueltatuko zarela uste duzu?

Ekainean ikasketak bukatuko ditut, eta datorren urtean Granadara bueltatzeko asmoa daukat. Momentuz ez naiz Ermura itzuliko.

Dorleta Vidal

SAN ANTONIO OKINDEGIA GOZOTEGIA

Izelaiaeta, 40 Tel. 17 00 63

AMAIA HARATEGIA

Bertoko Okelak

Probaleku 5
Tfnoa. 943 17 05 84
Ermua

AIZ

AIZ
Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

IKASTOLA
1968tik Ermua
euskalduntzen

elkarrizketa



Axier Arenas, San Lorentzo Eskolaren aurrean, hamaika kamioen joan-etorrien lekukoa izan zen.

Axier Arenas Leyaristi, San Lorentzoko bizilagunen batzordeko laguntzailea:

“Onartezina da hasieratik gaur egunera arte pairatu dugun informazio falta”

Zaldibarko zabortejiaren hondamendia gertatu eta gutxira sortu zen San Lorentzo auzoko bizilagunen batzordea. Hamar pertsona batu ziren hasieran, ezbeharraren aurrean antolatu eta beste talde batzuei laguntza eskaintzeko, eta gaur egun 80 bat lagunek parte hartzen dute. Haien ondoan Axier Arenas Leyaristi elgoibartarra dago hasieratik, eta honek komunikazioaren esparruan eman die babesa batez ere. Ermura ezkondu da hamar urte, harreman estua dauka auzo horrekin, negozioa baitu bertan eta alabek bertako eskolan ikasten dutelako. Hondamendiaren bigarren urteurrenean, Arenasek argi eta garbi hitz egin du azken bi urteotan auzoan bizi izandakoaz.

- Noiz sortu zen San Lorentzo auzoko batzordea?

Zabortegian lur-jausia gertatu eta handik hilabetera gutxi gorabehera, jakinarazi zutenean biltegi batzuk eraikiko zituztela, eta kamioak etengabe auzoan aurrera eta atzera hasi zirenean, gau eta egun.

- Nortzuk osatzen duzue?

Hasieran 10 lagun elkartu ziren, guztiak auzokoak eta adinekoak. Denborarekin jendea batzen joan zen, eta gaur egun 80 bat pertsonen parte hartzen dute. Egundean batean aktibistak etorri ziren taldearekin hitz egitera, eta euskaraz ondo moldatzen zen pertsona batekin bildu nahi zuten. Horiek horrela, senide batek proposatu zidan elkarrizketa horretan parte hartzea, eta hortik aurrera taldearekin kolaboratzen jarraitu dut.

- Zeintzuk ekimen burutu dituzte taldeak?

Euren kabuz gauza gutxi egin dituzte, manifestazioren bat baino ez. Bere zeregin nagusia da beste talde batzuekin biltegia eta haiek proposatutako ekintzei babesa eman: Zaldibar

Argitu edo Ekologistak Martxan taldeei, besteak beste. Protesta taldea da, eta ez dauka finantzazio propioirik.

- Nola gogoratzen dituzte lur-jausiaren osteko lehen momentu horiek?

Handik 200 metrora nengoen, parkean, eta bat-batean anbulantziak eta sirenak entzuten hasi nintzen. Hasieratik zerbait arraroa sumatzen zen: 8 ordu egon ziren autopista garbitzen, eta justu lan hori bukatutakoan konturatu omen ziren amiantoa zegoela. Seguru ez zirela aurretik konturatu? Aparkalekuan gertatutakoa ere zentzugabekeria izan zen. Mugimendu-sentsorea ipini zuten bertan, lur-jausi gehiago egoteko arriskua zegoelako, eta hilabeteak egon zen itxita. Autopista, aldiz, zabortegeitik gertuago dago, eta zabalik egon zen lehen egunetik. Hain ez zegoen arriskurik? Hasieratik agerian geratu zen interes pilo bat zeudela tartean.

- Auzokideek bazekiten bertan zabortege bat zegoela?

Batzuk bai, baina ez zekiten hain handia zenik, ezta hain



Otsailaren 6an burututako manifestazioa. Arg.: Silvia Hernández.

zabor mota ezberdinak jasotzen zituela. Uste zuten zabor industrial zela (olioz zikindutako zapiak edo burdina, esaterako), baina ez gauza arriskutsuak (plastikoak, amiantoa, igeltseroen hondakinak...).

- Arduradunek probatu zuten hondakin horiek jasotzeko baimena zutela?

Hamabost egun eman zizkieten baimenak aurkezteko, eta epe horretan agiri berriak egin daitezke, zaharrak erre, nahi duzuna... Agian legeak epe horiek ezartzen ditu, baina jendeak ez dakienez horrela izan behar dela, mesfidantzak agertu ziren. Dena den, nahiz eta paperak behar bezala egon, hondakinak ez zeuden modu

egokian jasota eta sailkatuta. Horrez gain, gauez kamioi asko pasatzen ziren, egunez baino dezente gehiago, eta klandestinitatean egindako zerbaiten itxura hartzen genion denok. Arraroa zen.

- Zabortegeiak seguruak dira edo ohikoa da ezbeharrak gertatzea?

Seguruak dira baldin eta planoetan jartzen duena egiten bada, eta mantentze-lanak egiten badira. Kasu honetan, 15 urtetan sartu zuten 35 urtetan sartu beharreko zaborra. Gauzak ez ziren ondo egin.

- Airearen kalitateari buruz, zer diozue?

Furanoak neurtzeko gailuak ipini zituzten jendea lasai egote-

"Nahiz eta paperak behar bezala egon, hondakinak ez zeuden behar bezala jasota eta sailkatuta"

Egaña

ETXETRESNA ELEKTRIKOEN
SALMENTA ETA KONPONKETA

Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08

ORBE
TOLDOS Y PERSIANAS

- Toldoak
- Ostalaritzarako muntaiak
- Pertsianak
- Instalakuntzak eta konponketak
- Motorizazioa
- Manparak
- Segurtasun pertsianak
- Pertsiana dekoratiboak
- Estoreak
- Eltxo-sareak

Tailerra:
Zearreko Buelta 2
943 17 66 34 - 630 01 13 41
48260 Ermua (Bizkaia)

Erakusketa: Karabixa 1
48260 Ermua (Bizkaia)
943 17 98 60
persianasorbe@gmail.com

CAPRI
PIZZERIA
943 03 33 15

IZASKUN TXURRUKA

Goienkale 9 Bajo
48260 Ermua Bizkaia
94 317 66 90
peluqueriaizaskun@gmail.com
peluqueriaizaskun.wordpress.com

RIF

ITURGINTZA
KONPONKETAK

Marques de Valdespina 16
ERMUA
605 71 10 81 / 688 71 27 10

ko, baina argi zegoen airearen kalitatea eskasa zela hasieratik. Auzokoak izututa egon dira, gauzak erdizka azaldu dizkietelako: agian gezurrik ez, baina egia osoa ere ez. Transparentzia falta izugarria egon da.

- Auzo bezala, kaltetuta sentitu zarete hartutako erabakiengatik?

Bai, erabaki batzuk ez dira zuzenak izan. Zabortegira joan ohi ziren kamioiak ez ziren eskola ondotik igarotzen, baina hondamendia eta gero, hortik joaten ziren denak. Udalari azalpenak eskatu genizkion, eta esan ziguten hortik bidea laburragoa zela eta obra handia egin behar zutela. Udal baikoitzak bere herria babestu behar du. Begira non jarri zuen Zaldibarrek zabortegia: bere

hirigunetik ahalik eta urrunen, Eibarrera eta Ermura pegatuta. Ematen du zabortegia gurea dela.

- Eta herriaren babesa sentitu duzue?

Nik neuk oso erantzun epela sentitu dut herritar arrunten aldetik: azken bileretara ez zen ia inor etortzen, eta azken ekintzetan ertzainek ia-ia lagundu behar ziguten errepidea mozten. Pentsa! Indar gutxi geneukan, eta gainera jarraian pandemia etorri zen. Hori primeran etorri zitzairen kontu honetan nahasita zebiltzane, gainetik presioa kentzeko.

- Nola dago zabortegia gaur egun?

Estali egin dute, eta ez dago inolako jarduerarik. Espero dugu horrela jarraitzea, eta gauzak ondo egin izana, modu

"Herritar arrunten aldetik oso erantzun epela jaso genuen"

arduratsuan. Ez dauka itxura txarra, baina ez dakigu nola egin duten obra. Ez digute bidali argazkirik, planorik... ezer. Eta prozesu guztian zehar gezurrak egon direnez, jendea ez dago lasai.

- Kamioen joan-etorriak behingoz bukatu dira, beraz...

Bai, baina lehen egunetan zoramena izan zen. Demagun esan zigutela 20 egunetan 100 kamioi igaroko zirela... bai zera! Hemendik nahi beste kamioi igaro ziren. Gainera ez ziren seguruak, eta bidean hondakinak zabaltzen zituzten. Hori oso kaltegarria izan zen, batez ere Eitzagako bizilagunentzat, etxe aurre-aurretik pasatzen zitzaizkielako kamioiok.

- Arduradunen kontrako auzia aurrera doa?

Bai. Oso astiro joan da, baina dagoeneko epaituen kontrako epaia eman da: gerenteari eta bi jabeei kartzela-zigorra jarri diete, baina ez dira kartzelara joango, ez dituztelako aurrekari-penalak. Horrez gain, zigor ekonomikoa ere ipini diete. Uste dugu auzi honetan irregu-

lartasunak egon direla, hasieratik esan zutelako zabortegiko arrakalen inguruan txosten bat zegoela, eta txosten honi esker epaiketari buelta eman ahal zitzaion. Orain ez dakigu non dagoen txosten hori, ezta nola kudeatu den... Hasieratik egon da izugarriko informazio falta, eta gaur egun ere berdin jarraitzen dugu.

- Otsailaren 6an, hondamendiaren 2. urteurrenean, manifestazioa deitu zenuten Zaldibar Argitu eta Ekologistak Martxan taldeekin batera. Zeintzuk dira gaur egungo aldarrikapenak?

Kontu honek hiru hanka zituen. Alde batetik, zabortegia ixtea, berriro halakorik ez gertatzeko, eta gai horri konponbidea eman zaio. Bestalde, arduradunak epaituak izan behar ziren, eta hori ere gauzatu da. Hirugarren hankak, garrantzitsuen dena, ez dauka oraindik erantzunik: zabortegian lanean zeuden bi pertsona ez dira bueltatuko, eta ematen du ez dela ezer gertatzen.

Dorleta Vidal

Tasio eta Sabino



- Eta Joaquin agertu gabe...



**ZUZENBIDE
KONTUAK**

Lege eta
kontu aholkularitza

Izarra Centre eraikina

Tel: 846080080

Mugikorra: 688885435

zuzenbidekontuak@gmail.com

KRABI
Ileapaindegia
Estetika

Tel: 943 03 17 56

Diputazio, 5

ERMUA

Eskuz egindako
terapietan adituak

ARTROS
FISIOTERAPIA MANUAL

Probaleku 5 · 48260 · Ermua
617 680 156
www.artrosermua.com

Psikologia
Ongizate pertsonalerako zentroa

GUZTIOK
Nahia Rojo Bustindui
Psikologoa eta Sexologoa

Zubiaurre 40 · Ermua
Hitzordua: 688 85 18 95

MALIA
ileapaindegia

Probaleku 8, behea

© 943 17 18 50

Nahikari Emakumeen Elkartea:

“Asko estimatzen dugu herri txiki batean espazio seguruak bermatzea”

Duela 15 urte baino gehiago ekin zion bideari Mallabiko Nahikari Elkarteak. Talde kopurutsua da, eta hainbat ikastaro eta zerbitzu eskaintzen dizkiete herritarrei: bai emakume zein ume eta gizonei ere. Oinordeko ezaren aurrean, gazteak taldera hurbiltzeko lanean dabilzate.

- Noiz sortu zen Nahikari?

Era ofizialean, orain dela hamar urte sortu zen, baina lehenago ere elkartzen ginen. Guztira 16 urte izango ditu taldeak.

- Nola sortu zen?

Hasieran, Udalak antolatzen zituen tailerretan elkartzen ginen. Bazegoen grina bat zerbait sortzeko eta elkarren artean bateratzeko. Azkenean, Udalak elkarteak sortzeko ematen zituen laguntzekin bateratu eta era ofizial batean, paper gainean, eratu ginen.

- Zenbat zarete taldean? Zein da adin tartea?

Taldean 40 inguru izango gara, pixka bat gutxiago. Adinaren aldetik denetik dago, baina egia da gehienak helduak gara. Horrek pena apur bat ematen digu, azken finean, eginda dagoen lana ikusita eta oinordekorik ez dagoela sentitzea... Gazteak animatu nahi ditugu hurbiltzera, eginda dagoena aurrera eraman ahal izateko.

- Zein nolako ekintzak burutzen dituzue?

Era askotako tailerrak egiten ditugu: biodantza, saltsa-mengue, eskulanak, sexualitateari buruzkoak... Horieta gain, eskolan ere berdintasunari buruzko tailerrak antolatzen ditugu, adin guztientzat, baita desentzerratuak tailerrak gizonentzat.

- Zein da gehien gustatu zaiuzuen tailerra?

Badaude tailer batzuk oso interesgarriak izan direnak. Sexualitateari buruzkoa aberasgarria iruditu zitzaigun: hainbat testuingurutako emakumeak elkartzea, betidanik ezagututakoak eta adin ezberdinetakoak, eta haien esperientziak entzutea... Asko estimatzen dugu horrelako espazio seguruak bermatzea. Ez da erraza herri txiki batean, non denok ezagutzen zaituzten, negarrez hastea. Tailerrez gain, hauek sortzen duten ingurugiroa zoragarria da. Badaude pertsona batzuk



ez lirakeenak etxetik irten-go tailerengatik ez balitz, eta iruditzen zaigu garrantzitsua dela aukera hauek edukitzea jarraitzea. Tailer hauetan, ezagutzen dituzun pertsonez gain, beste askorekin elkartzeko aukera egonik, bizi-pen interesgarri eta oparoak suertatzen dira. Ez dugu galdu nahi. Zaintzen gaituzten horiek ere zaintza bat behar dute, eta horrelako bileretan ezagutza eta ulermen ariketa bat eratzen da.

- Horrez gain, sumatzen dituzuen gabeziei erantzuteko ikastaroak sortzen dituzue.

Gure ustez, eskertzekoa da gaur egungo baliabideak norbaitek azaltzea. Badaukagu tailer bat alfabetatze digitalaren inguruan, non hurbiltzen direnei teknologia berriak erabiltzen irakasteko asmoa

dugun. Orain arazo asko izan dituzte nagusiek pasaportea deskargatzeko, hitzorduak eskatzeko... Ezinbestekoa iruditzen zaigu horrekin laguntzea.

- Beste laguntzarik eskaintzen duzue?

Bai, BFAko Tartekari Sarea programan parte hartzen dugu, eta gizarte laguntzarako eragile bat daukagu. Eragileak hasierako arreta ematen dio genero indarkeria sufrizten duen emakumeari, gizarte baliabideetara iristeko eta indarkeria egoeratik ateratzeko. Eragilearen telefonoa hurrengo da: 688 72 71 89.

- Zuekin kontaktuan jartzeko?

Facebooka ireki dugu: Nahikari elkartea. Helbide elektronikoa ere badugu: nahikarielkartea@gmail.com

Nahia Ruiz Albizuri



ITZE
OPTIKA
AUDIO

Entzumenaren doako azterketak
Audifonoetan azkenengo teknologia

Probaleku, 7

Tfnoa. 943 17 46 51

Drogeteniturrri, 308 zk.

solozabal
tabakoak

torrekua 1
tel./fax: 943 17 07 33



INAUTERIETAKO EGITARAUA

Otsailaren 26a, larunbata

17:00 Emakumezkoen Gomazko Paleta Elite txapelketa (finalerdiak), Frontoian.

19:00 Txitxiburduntzia parkean. Norberak eraman beharko du txorizoa, ogia eta makila. Sua eta umeentzako edaria Udalaren kontu.

20:00-22:30 Mozorro erromeria parkeko aterpean Gauargi taldearekin.

Otsailaren 27a, igandea

10:30 Eskolarteko gomazko paleta partiduak, Frontoian.

Superigandeak:

11:00 Jolasak Eskolan.

16:30 Zinema Kontzejuzarrean.

Martxoaren 1a, asteartea Karnabal Eguna

14:30-16:00 Txoborro magoa Eskolan.

16:30 Txokolatada Frontoian.

16:30-20:30 Erromeria Frontoian, DJ Oihan Vegarekin.

18:30 Playback - Mozorro lehiaketa. Lehiaketarako izen-ematea frontoian bertan egin daiteke, 16:30etik 17:30era (edo Udal Liburutegian otsailaren 24ra arte). Talde edo pertsona bakoitzak abesti bakarra aurkeztu dezake USB batean.

Sariak:

12 urtetik beherakoak:

Bakarka: 60 eta 30 euroko truke-txartelak.

Taldeka: 120 eta 60 euroko truke-txartelak.

12 urtetik gorakoak:

Bakarka edo bikoteka: 100 eta 50 euro.


Taldeka: 200 eta 100 euro.

Helduentzako saria: Etxeko arropa zaharrekin egindako mozo-rruari, 60 euro.

Mallabiko Kultur Exea

FEREDU

SOLUTIONS S.L.



- * HEZETASUNAK
- * ERREHABILITAZIOA
- * INPERMEABILIZAZIOAK
- * MANTENIMENDUAK
- * IGOGAILUAK
- * ERREFORMAK
- * FATXADAK
- * ITE
- * TEILATUAK
- * GARBIKETAK

www.feredusolutions.com
699 476 112 / 946 423 649 ERMUA

BI ERMUAR AGERTZEN DIRA 2021EAN ZENDUTAKO BIZKAITAR ESANGURATSUEN ZERRENDAN

El Correo egunkariak argitara eman-dako hileta-liburuan, aurreko urtean zendutako bizkaitar bikainen artean topatzen dira Elena Perez musikaria eta Jasone Salaberria filologo ermuarrek. 59 andrazko eta gizonezko jasotzen dira bertan, kultura, kirol, politika edota ekonomiaren esparru anitzetan jardundako herritarrak. Bakoitzaren argazki eta ibilbidearen gaineko aipamen laburtuarekin, euron izena eta izana goraiatu nahi izan da, egindakoaren lan eredugarriak gizartearentzat suposatzen duen balioa nabarmenduz.

SASKIBALOIAREN JAIALDIA BURUTUKO DA MARTXOAREN 20AN ERMUAN

Martxoaren 20an, domeka, saskibaloian jarduteko aukera izango dute 7 eta 13 urte bitarteko gaztetxoek, 9:30ean hasita Ermuko Kiroldegian. Egun horretan 3x3 txapelketa, jolasak eta trebetasun-lehiaketak burutuko dira, parte-hartzaileek kirol hau ezagutzeko helburuarekin. Parte hartu nahi dutenek izena eman beharko dute alde aurretik, ermubasket@gmail.com helbidera mezua idatzita (plaza mugatuak). Antolatzaileak dira Baloncesto Ermua CD, San Pelayo ikastetxea eta IGEa, BSF-FVB eta Ermuko Udala.

Aitor Hernandez txirrindularia pozik dago denboraldi honetan lortutako emaitzekin

Urtarrilaren 23an burutu zuen txirrindulari ermuarrek 2021-2022 denboraldiko azken lasterketa, eta egunotan aztertu ditu azken lau hilabeteotan lortutako emaitzak. Neguko denboraldia urriaren 16an hasi zen, Medina de Pomarren (Burgos), eta Beran (Nafarroa) bukatu zen. Guztira, Spezialized-Ermua Inpulsio taldeko kirolariak 19 lasterketa burutu ditu, eta lau garaipen lortu: Legazpin, Lezaman (non Bizkaiko txapela irabazi zuen), Iruñean eta Beran. Beste lau bider, gainera, podiumera igo zen (Beasainen, Trapagan, Zuian eta Amurrión).

Nabarmentzekoak dira ere C1 UCI kategorian lortutako 6. postua Laudion, C2 UCI kategorian lortutako 7. postua Karrantzan, eta Espainiako txapelketan lortutako 7. postua Xátivan (Valentzia). Txirrindulariak adierazi du sasoiaren egon dela eta, nahiz eta nazioarteko txapelketetan goiko postuetan egotea zailagoa den, haietan ere lan polita egin duela. Halaber, jakinarazi du datorren denboraldian Manufacturas GEsekin kolaboratuko duela, eta gonbidatu dutela Frantziako Tourrarekin kolaboratzeko. Izan ere, lasterketa horren lehen hiru etapak Euskal Herrian burutuko dira.



Kuadrillen mozorro lehiaketa antolatuko da Ermuan inauterietan

Ermuko Kultura Sailak ekimen berria burutuko du inauterietan: kuadrillen kalejirako lehiaketa. Otsailaren 26an, larunbata, egingo da kalejira, 12:30ean, eta kuadrilla bakoitzak 10 partaide izan beharko ditu gutxienez, edozein adinetakoak. Lehiaketa parte hartzeko alde aurretik eman beharko da izena, bide hauetako bat erabilita: kultura@udalermua.net helbidera mezua bidalita, Lobiano Kulturagunean, edo ekitaldiaren egunean plazan jarriko den mahaian, kalejira hasi baino hamar minutu lehenagora arte (12:20ak arte, alegia). Epaimahaiak baloratu dituko: gaia; mozorroen diseinua eta nola eginda dauden; animazioa, abestiak, koreografiak; eta tresnak, tramankuluak eta karrozak. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, sari bakarra egongo da: taldeko guztiontzako sarrerak ikuskizun bat ikusteko eta bazkari bat herriko jatetxe batean.



Zure publizitatea:

DROGETEN ITTURRI
Ermuko eta Mallabiko herri-aldizkaria

943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com



ileapaindegia
Silvia
peluqueria

Asteartetik ostiralera
9:00-12:00 15:00-19:00
Larunbata
8:30-13:00

943 170474

688819336

200 lagun inguruk parte hartu dute Artarraik antolatutako XI. Zuhaitz Egunean

Otsailaren 20an burutu zen aurtengo Zuhaitz Eguna, hamaikagarrena, eta bertan 200 lagunetik gora parte hartu zuten. 10:00etan plazan batu, Joxioraino elkarrekin joan (Sallabente auzoan), eta 210 zuhaitz autoktono inguru landatu zituzten bertan: gehienak pagoak, baina baita gaztainondoak, arteak, astigarrek eta lizarrak. Ekintza honen bidez, Artarra Mendi Taldeak eta Anaitasuna Ikastolak herriarrak (eta umeak, batez ere) kontzientziatu nahi dituzte zuhaitzek gizadiarentzat duten garrantziaz, eta naturguneak babesteko beharraz. Era berean, basoek planetan



duten eragin positiboa nabarmentzen dute antolatzaileek: CO2ren isurketen aurka, negutegi efektuaren eraginean, basamortutze prozesuan, bioaniztasunari eusteko eta uraren eta airearen kalitatearen kontrolean, besteak beste. Ekimen honek Ermuko Udalaren Ingurumen Sailaren dirulaguntza jasotzen du.

Martxan dago Korrika laguntzailea izateko kanpaina

Korrikaren 22. edizioa gero eta gertuago dago, eta harekin kolaboratzeko bideak martxan daude jada. Horietako bat da Korrika laguntzailea izatea: 12 euroren truke, laguntzaileak pina eta txartela jasotzen du, zozketetan parte hartu, eta abantaila ezberdinez gozatu. "Laguntzaileen multzoa areagotzen ari da. Egun, 8.000 Korrika laguntzailearen langa igaro dugu. Azken Korrikan, 9.000 izan ginen; eta, aurtengoa, 11.000 izatera iritsi nahi dugu", azaldu dute antolatzaileek. Izena eman nahi dutenek hiru bide dituzte: Infreñu tabernan, Kaltxango AEK Euskaltegian eta korrika.eus/form/laguntzaileak helbidean sartuta.

ABELETXE EGOITZAKO LANGILEEK BORROKAN JARRAITZEN DUTE

Abeletxe egoitzako langileek eta ELA, LAB, CCOO eta UGT sindikatuek hainbat mobilizazio burutu dituzte azken asteotan, eta hiru greba deitu dituzte otsailaren 24rako eta martxoaren 10erako eta 24rako. Gainera, manifestazio burutuko dute otsailaren 24an, 18:30ean egoitza hasita, "Abeletxen ez dituzte zaintzen, eta ez gaituzte zaintzen" lelopean. Mobilizazio hauekin salatu nahi dute plantilla minimoetan dagoela, ratioak ez direla zentzuzkoak, estresa jasangaitza dela, egoilarrak ez daudela ondo zainduta, ez dagoela osasun-langile nahikoa, eta materialari eta janariari dagokienez, gero eta baliabide urriagoak dituztela.

XV PIROPO LEHIAKETA MARTXAN DA

Euskara Sailak jakinarazi duenez, martxan dago aurtengo Piropro Lehiaketa, eta 3 kategoria ezberdin egongo dira: 14 urtetik behera, 14 urtetik 17 urtera, eta 18 urtetik gora. Parte hartu nahi dutenek piropoa idatzi beharko dute euskaraz, eta euskara@udalermua.net helbidera bidali, Liburutegian dagoen kutxan sartu edo 616 02 75 85 telefono zenbakira WhatsAppa idatzi. Sariak izango dira 50 eta 100 euroko erosketak txekiek gazteentzat, eta La Perla talasoterapiari saioa eta bazkaria helbideentzat. Azken eguna: martxoaren 11.



AMALUR
FISIOTERAPIA

Otsailaren 28an zabalduko dugu!

688 61 98 96
Zeharkale 11 Bajo
48260 ERMUA

IRENE ESQUE col 1665 EGOITZ FORMOSO col 1675









“Mondragon Unibertsitateak errealitatearen aurrean jartzen laguntzen dizu”

Paula Hernando (Elgoibar, 19 urte)
Gastronomia eta Sukaldaritza Arteak
graduako bigarren maila ikasten ari da
Mondragon Unibertsitatean.

- Definitu apur bat zure burua: non egin dituzu orain arteko ikasketak?, baduzu hobby edo zaletasunik?

Orain arteko ikasketak, nire herriko ikastolan eta IES Elgoibar Arreiturre BHI-n egin ditut. Sukaldatzea eta igeri egitea asko gustatzen zait.

- Zergatik aukeratu zenuen Gastronomia eta Sukaldaritza Arteak gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?

Gastronomia ikastea erabaki nuen; baina sukaldaritzaz gain, jakintza arlo asko biltzen zituen gradu bat egin nahi nuen; horregatik aukeratu nuen hau. Eta Mondragon Unibertsitatea, gastronomiari buruz ikertzea gustatzen zaidalako eta unibertsitate honek ikerketa bultzatzen duelako.

- Nola baloratuko zenuke orain arte bizitako esperientzia?

Orain arte bizitako esperientzia oso positiboa izan da. Asko gustatzen zait nola irakasten duten, sukaldaritza modu sakonean erakusten dutelako.

- Nola definituko zenuke Basque Culinary Centerren jasotzen duzun ikasteko metodologia?

Jasotzen dudun ikasteko metodologia oso ona da, arlo interesgarri asko harzen ditu; hala nola, ikerketa eta abangoardiazko garapena. Denborarekin eboluzionatzen duten eremu oso dinamikoak direla uste dut; hau da, abangoardia beti dago eboluzioan eta oso interesgarria da hau ikastea.

- Unibertsitateetik zer da gehien gustatzen zaizuna?, Eta zerbait hobetzeko?

Unibertsitateetik gehien gustatzen zaidana irakasteko modua da, irakasgaiak oso ondo egituratuta daude. Bestalde, lan-taldek urtero aldatzen dituzte eta hori oso onuragarria da, pertsona eta egoera berriei aurre egiten diezu eta. Unibertsitate honek errealitatearen aurrean jartzen laguntzen dizu. Egia esan, ez dut gauza handirik ikusten hobetzeko.

- Zer nolako ekarpena egiten dizu praktikak egiteak?

Praktikak egiteak, ekarpen eta onura oso onak ematen dizkit. Lortutako ezagutza guztiak, praktikan jartzen ditut nire kabuz, irakasleen edo unibertsitateko beste ikaskideren laguntzarik gabe. Aurre egin behar diezu ezusteko



askori, baina aurrera egiten duzu... Uste dut, praktikak ezinbestekoak direla eta oso ondo planifikatuta daudela. Gauza asko ikasten dituzu, bertan lan egiten duen jendeak urte askotako esperientzia duelako.

- Etorrizunari buruz zeintzuk dira zure asmoak?

Bigarren kurtsoan irakasgai guztiak tronkalak dira. Hurrengo urtean erabaki behar dut. Hala ere, ez dakit nondik joango naizen, denak erakargarriak direlako. Argi daukadana da ez naizela zuzendaritzaren adarretatik joango, industriaren edo abangoardiaren adarra aukeratuko dut.

Poltsa berrerabilgarriak banatu dira Ongarai Eskolako LHko ikasleen artean



2021eko Udal Batzarrean eta Agenda 30 proiektuaren barruan, Ongarai-ko 6. mailako ikasleek aurkeztutako proposamena gauzatu da. Bilkura horretan Udalak onartu zuen oihalezko poltsa berrerabilgarriak herri osoko Lehen Hezkuntzako ikasleei banatzea. Otsailaren 11n Hezkuntza eta Ingurumeneko ordezkaria den Jol Gisasola eta udal langilea den Tere Conde eskolara bertaratu ziren hartutako konpromisoa betetzeko. Seigarren mailako ikasleei aurrez aurre eman zizkieten poltsak; gainerako ikasleei irakasleek banatu zizkieten.

Bigarren mailako ikasleak igerilekuan



Aurreko ikasturtean, pandemiaren eraginez, Ongarai Eskolako ikasleek ezin izan genuen igeriketa ikastaroa egin. Aurten ekintza martxan jarri da berriro, eta guk, bigarren mailako ikasleok, ikastarorari ekin diogu Kiroldegian.

Urtarrilean hasi eta martxoan amaituko dugu: hamar saioko iraupena du eta asteazkenera joaten gara. Esperientzia arrakastatsua izaten ari da, ikasleok oso gustura joaten garelako. Irrikan egoten gara igerilekura joateko!

Antton Kazabonen bisita izango dugu



Martxoaren 15ean, Ongarai Eskolako LHko 4. mailako ikasleok Antton Kazabon idazlearen bisita izango dugu. Horregatik, otsailan, *Momolo* izeneko bere liburuetako bat irakurri dugu. Izugarri gustatu zaigu, oso entretenigarria eta dibertigarria izan da. Idazle honen beste liburu bat irakurtzeko irrikan gaude!

Txabi Arnal idazle ermuarra Ongarai Eskolara etorriko da



Ongarai eskolako 3. mailako ikasleok Txabi Arnal idazle ermuarraren *Torlojuak* liburua irakurtzen ari gara. Oso dibertigarria iruditzen ari zaigu eta oso gustura gaude liburuarekin. Martxoaren 7an, arratsaldean, Txabi Arnal bera etorriko da ikastetxera gurekin egoteko eta bere liburuaz hitz egiteko.



CITROËN
AUTOS AMEDI

Zearreko buelta eraikina 3, L8 pab.
Telefona 943 17 04 14

Ferreteria
ANBOTO
Burdindegi

Orain
KOTXEKO GILTZEN
KOPIAK ere
egiten ditugu

943 17 69 76
607 33 11 77

ZUBIAURRE, 25 ERMUA (BIZKAIA)
www.ferreteriaanboto.es



SAGARDUI
poltsak

Zubiaurre, 29 - Ermua · 943 170305

Plan B

Coffee Lounge Gin & Beer



Torrealday

ZURE FINANTZA-OSASUNERAKO BAZKIDE ESTRATEGIKOA

ZERGA, LAN ETA KONTABILITATE AHOLKULARITZA ERMUA

Santiago Fuertes, kirolaria:

“Korrika egiten ez badut, zerbait falta zaidala iruditzen zait”

Hamahiru urterekin hasi zen eskolan korrika egiten, eta bere bizitza estiloa izan da beti. Gazte izanda etorri zen Leonetik Ermura, eta gaur egun Espainiako beteranoen maratoi txapeliduna da, 68 urterekin.

- Noiz hasi zinen kirolaren munduan?

Haur bat nintzenean hasi nintzen, Leongo apaiz-eskola batean. Han eman nituen lehen urratsak atletismoaren munduan, kros lasterketetan. Ermura iritsi nintzenean utzi egin nuen, garai hartan jarraipen handirik ez zuen kirola baitzen. Baina, 30 urterekin entrenatzaile hasi nintzen Teresa Murga ikastetxean, eta entrenamenduei ekin nien berriro.

- Zergatik erabaki zenuen maratokiekin hastea?

Herri-lasterketetan korrika egiten hasi nintzen, baina distantzia luzeetan lehiatzea gustatzen zitzaidan; beraz, maratobietan lasterka egitea erabaki nuen.

- Zer kirol egin dituzu bizitzan zehar?

Lagunekin futbolearen aritzen nintzen plazan, baina ez nau inoiz gehiegi erakarri. Atletismotik haratago, ez dut kirol gehiago egin. Egia da atletismoaren barruan hainbat modalitate probatu ditudala.

- Zer garrantzi du atletismoak zure bizitzan?

Garrantzi handia. Duela urte batzuk alaba hil zitzaidan eta korrika egitea izan zen aurrea egiteko modu bakarra, nire ihesbide bakarra. Arazoak izan ditudan guztietan, atletismoak isolatzen lagundu dit.

- Atletismoko lehiaketa profesionalak jarraitzen dituzu?

Jakina! Txapelketa gehienak jarraitzen ditut: haur txikiak, profesionalak...

- Zer eskaintzen dizu atletismoak zure eguneroko bizitzan?

Egoera fisiko nahiz mental ona izatea. Azken finean, bizitza osasuntsu bat izatea.

- Zer da atletismoko gauzarik garrantzitsuena?

Lagunak egitea eta pertsona ona izatea. Kontuan hartu behar dira atleten balioak trebetasunen gainetik. Garrantzitsuena kiroltasuna izatea da, eta gainerako lehiakideek norberari eragin diezaioketenaz ohartzea.

- Nola prestatzen zara maratoi baterako?



Santi Fuertes aspaldiko argazki batean.

Maratoia hasi baino hiru hilabete lehenago hasten naiz prestatzen. Nire ezagupenekin entrenamendu bat prestatzen dut, nire beharren eta ezaugarrien arabera. Bospasei aste falta direnean, hogeitahamar kilometro gehiago egiten ditut egunero; horrek eramaten nau astean 90-100 kilometro artean egitera.

- Zein da maila nazionaleko txapeliduna izatearen sentsazioa?

Sentsazio izugarria da! Hasieran ez diozu garrantzi handirik ematen, baina ordu batzuk pasatzen direnean zure lorpenaz konturatzen zara. Hala ere, inoiz ez duzu ahaztu behar balioak eta kiroltasuna erakusten.

- Zein da korrikan jarraitzeko duzun motibazioa?

Ondo sentitzea. Nire bizitzaren zati bat betetzeko korrika egin behar dut: korrika egiten ez badut zerbait falta zaidala iruditzen zait. Bestalde, lehiatzen jarraitzeko grina dago. Fisikoki ondo jarraitzen badut, apirilaren 3an Espainiako Maratoi Txapelketara joango naiz, Zaragozara.

- Noiz arte jarraituko du korrika egiten Santi Fuertesek?

Gorputzak uzten didan arte. Maratoia prestatzea oso sakrifikatua da, eta lesio-arriskua dago beti. Hala ere, lehiari jarraituko dut, osasunak uzten didan arte.

Eneko López

ARKITEKTURA ESTUDIOA
BERRITZE LANAK ZURE ERAIKINEAN
Ez dakizu nondik hasi?
GURE LANTALDE TEKNIKOAK
LAGUNDUKO DIZU
ZUK ERABAKI
www.spara.es
info@spara.es
Probaleku, 4 Bis, Bajo 48260 Ermua - Bizkaia
943 17 70 57

KARABIXA
KARABIXA KAFETEGIA
Egunero 8:30etik aurrera zabalik
Drogetenituri, 308 zk.

Iosu Arraiz Aranburu, Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateko presidentea:

“Erronka nagusia da errefus kopurua gutxitzea”



Iosu Arraiz Aranburu jeltzalea (Elgoibar, 1991) 2019ko uztailaren 26tik da Debabarreneko Mankomunitateko presidentea. Hondakinen gaikako bilketa da bere ardura nagusietako bat. Azpimarratu du, kosta egiten den arren, apurka-apurka herritarrak ari direla ohiturak aldatzen.

- Mankomunitatearen 15 milioi euroko aurrekontutik 9 milioi euro pasa bideratuko dituzue hiri-hondakinen bilketara. Zelan banatzen da herrika?

Mankomunitateak eskaintzen duen zerbitzua komuna da, ez da herrien arabera bereizten.

9 milioi euro horien barruan sartzen dira, besteak beste, inbertsioak. 2019tik 1,3 milioi euro bideratzen dira inbertsioetara, kale garbiketara, administrazioa... Hondakin bilketaekin lotuta, aurtengo inbertsioak izango dira baliabideak berritzeko, iaz moduan:

kamioiak, konpostagailuak, edukiontziak...

- Lurrazpiko edukiontziak erretiratzen ari zarete, ezta? Bai, iaz ordezkatu genituen lurrazpiko 52 edukiontzi lurrazalekoengatik. Egoera ikusita eta herritarrei sortzen zizkieten arazoak kontuan hartuta erabaki genuen aldatzea, gainera, mantentze-kostu altua dute. Bestalde, orain, lurrazalekoengatik aldatu ez diren lurpeko edukiontziak berritzen ari gara, egoera txarrean zeudenak eta hainbat arrazoiengatik lurrazalekoengatik aldatu ezin izan direnak. Elgoibarren hasi gara lanean eta berrituko ditugu Ermuan, Eibarren eta Mutrikun: guztira, 65 edukiontzi urtea amaitu aurretik.

- Bilketa selektiboaren datuen arabera, 2017tik (%48,88)

2018ra (%53,55) izan zen gaikako bilketan igoera nabarmenena; harrezkero, gutxiago igo da edo bere horretan mantendu da. Zein da helburua? Igotzen joan da, batik bat, sisteman berrikuntzak sartu izan direnean, adibidez, organikoaren bilketa, errefusarena... Gero, egonkortu egin dira datuak. Hau sirimiria bezalakoa da; jendearen ohitura aldaketetan eragitea ez da batere erraza, poliki-poliki doa bustitzen eta ohitura berriak barneratzen. Hala ere, helburua da hazten segitzea. Ari gara sistema aztertzen, bilketa hobetzeko, herritarrei erraztasunak emateko eta eraginkorrago bilakatzeko. Dena den, oro har, datuek hobera egin dute eskualdeko herri guztietan. Gaikako bilketan %55 inguruan gaude eskualde mailan.

- Zein kopuru nahi duzue lortu?

2020rako ezarrita zegoen gaika %40 batzea, hori gainditu egingen dugu. 2025erako %50a dago ezarrita. Hori ere bete dugu. 2030erako dugun helburua da %70erainoko gaikako bilketa lortzea.

- Zer da gehien kostatzen dena?

Ontzi arinak batzea. Sortutako hondakinen artetik ontzi kopurua zenbatekoa den kontuan hartuta, gutxi batzen dugu. Azkenean, ia dena da plastikoa. Erronka nagusia, berriz, da errefus kopurua txikitzea.

- Debagoienarekin konparatuz, ia 20 puntu beherago dago Debabarrena (Debagoieneko gaikako bilketa da %74,54). Aztertu duzue arrazoia?

Eskualde bakoitzak bere garaipena egin du hondakinen bilketan. Gipuzkoan daude batzuk guk baino gehiago biltzen dutenak eta beste batzuk gutxiago. Guk gure bidea dugu eta nahi dugu hor sakondu, herritarren, enpresen eta gizarteko beste kolektibo batzuen laguntzarekin. Nik uste dut sisteman baino, eragin behar dugula ohituretan.

- Europako beste herrialde batzuekin alderatuta, baxua da hemengo gaikako bilketa; berrerabiltzeko ohitura ere ez dago horren barneratuta...

Kontzientziario falta dago, akaso?

laz egin genuen kanpaina hondakin gutxiago sortzeko eta berrerabiltzeko... Uste dut bogan dagoela bigarren eskuko produktuak erostea, adibidez, Internetez. Herrietan ere bigarren eskuko gero eta azoka gehiago egiten dira. Nik esango nuke, orain arte bigarren eskuko arroparik –famiatiki kanpikorik– ez genuela ia nahi eta orain gero eta gehiago erabiltzen edo erosten dela. Uste dut badagoela aldaketa. Konpondu, berrerabili eta bigarren eskukoak salerosi egin behar dira. Zenbat eta gutxiago sortu orduan eta gutxiago izango dugu gaika biltzeko. Gaika biltzea azken alternatiba da.

- Enpresen hondakinak ere batzen dituzue. Nahikoa birziklatzen dute?

Industrialdeetan batzen dugu egurra, papera, ontzi arinak, biohondakinak eta errefusa, hiriko hondakinekin pareka daitezkeenak. Orain, industrialdeetara bisitak egiten ari gara, gogorazteko ezin dutela jarduera industrialarekin lotura duten hondakinak errefusera bota, adibidez, txirbilak, tailer mekanikoetako olio poteak... Horiek dira euren jarduera ekonomikoan sortzen dituzten hondakinak eta bakoitzak bere tratamendua behar du. Hori ez da gure arduren barruan sartzen.

"Lurrazpiko edukiontzia aldatzea erabaki dugu, herritarrei ekartzen dizkieten arazoengatik eta mantentze-kostu handia dutelako"

"Bogan dago bigarren eskuko produktuak erostea: zenbat eta gutxiago sortu, orduan eta gutxiago izango dugu gaika biltzeko"

"Sortutako hondakinen artetik, gehien kostatzen dena da ontzi arinak batzea"

"Pandemian, edukiontzien txip sistemak kendu genituen, eta ez dugu ikusi bilketa datuek okerrera egin dutenik"

- Garbiguneetara zer bota daiteke?

Aparailu elektronikoen eta elektrikoaren hondakinak, pintura latak, olio poteak... Hau da, partikularrek etxeetan sortzen dituzten hondakin arriskutsuak. Gremio txikiek ere erabil ditzakete, adibidez, margolari autonomo batek. Baina mugak daude: 250 kilo asteko, eta, obra hondakina bada –amiantorik gabekoa beti–, 500 kilo astero. Lau garbigune daude: Elgoibarren, Ermuan, Eibarren eta Mutrikun. Eibarko eta Elgoibarko dira berrienak eta handienak. Ermukoaren kopurua ez da aproposena eta tamaina aldetik ez du horrenbeste erraztasun. Hori hobetu beharra dago. Mutrikuko, berriz, ondo dago, erdibidean.

- Elgoibarren kokatuta dagoen Urruzunoko zaborteia itxi zen. Nora eramaten dira hara zihoazen hondakinak?

2007an itxi zen. Orain zigitlatzen ari gara ingurunea, esparrua berreskuratzeko garrantia guztiekin. Kapa begetala eta belarra landatuko dizkiogu azalean. Urruzunora ez dira inoiz eramaten hiri hondakinak, hondakin inerteak, baizik. Hara eramaten ziren bolumen handiko hondakinak, gaur egun Zubietara eramaten dira, egurra Kanpanzarrera eta plastikoa Aizarnazabalera. Osterantzean, hondakinei dagokienez, errefusa eramaten da Zubietako ingurumen zentrorra, organikoaren zati bat Epeleko

konpost-plantara, beste bat Zubietako bio-metanizazio plantara, ontzi arinak Legazpiko planta batera, papera eta kartoia Zornotzako Saica Natur enpresara eta beira Ecovidriora. Bakoitzak bere trataera du, ahalik eta gehien aprobetxatzeko.

- Pandemiarekin kendu egin zen edukiontzien txip sistema. Horrek eragin bat izan du bilketan?

Mantendu egin dira datuak. Ez dugu ikusi okerrera egin dutenik. Beraz, orain gaude aztertzen zer egin, ea merezi duen txipa ipintzerik edo frakzio jakinen batean ipintzea...

- Bi urte Zaldibarko zaborte-gian hondamendia gertatu zenetik; zelan ikusten duzu egoera?

Gure lan errotik kanpo geratzen da Zaldibar. Dakiten pertsonak edo adituek hori argitzea nahiko genuke. Guri dagokigunez, gure hondakinak bideratuta ditugu eta hondakin horietatik ahalik eta gehien aprobetxatzea da asmoa. Helburua da hondakindegietara ahalik eta gutxien botatzea.

- Besterik nahi baduzu gaineratu...

Gogoraztea birziklatu egin behar dela eta ekonomikoki eta ingurumenarentzat ezin bestekoa dela gutxiago sortzea.

Atxikimendu desantolatua

Cites (hitzorduak) fikziozko telesail kataluniarra da, eta bertan gurutzatu egiten dira berriro maitemindu nahi duten pertsonen istorioak. *First Dates* telebista saioan gertatzen den bezala, ikuslea hitzordu ezberdinen lekukoa da, non elkartzen diren klase ugariako pertsonaiak. Martin aita ezkongabea da, eta bikotekidea topatzeko bidean, bere alabaren ama berriro agertzen zaio, sare sozialen bitartez alabarekin kontaktuan jarri eta gero. Emakume hau desagertu zen umea jaio zen egun berean, eta Martinek bere alabari azaldu behar dio zergatik galarazten dion harekin harremana izatea. Hitz egiten dute, eta alabak galdetzen dio zergatik jokatu zuen

horrela bere amak; Martinek azaltzen dio badaudela pertsona batzuk ez dakitenak gauzak ondo egiten.

Izan ere, pertsona batzuk ez dakite erabaki egokiak hartzen, ez dutelako izan atxikimendu segurua bermatzen duen figura; "atxikimendu desantolatua" deritzona jasan dute. Seguruenik, pairatu egin zuten haiekin portaera iraunkorra ez zuten gurasoak. Hau da, ikasi behar izan zuten, nahiz eta jokaera egokia izan, ez zutela gurasoengandik erantzun positiboa izango. Eta egoera horrek ondorioak ditu: haztean, pertsona nartzisistak bihurtzen dira, perfekzionistak eta beren bizitzak kontrolatzeko beharra dutenak. Eta bikotekidea topatzeko



Juan Carlos Martín

orduan ere, maitasun harreman baten aurrean bere gurasoek bezala jokatzeko duten bikotekideak aukeratzeko dituzte, erantzun ez-iraunkorrek ematen dituztenak.

Baina horiek ez dira izaten eragin bakarrak. Atxikimendu desantolatua izan daiteke mugako nortasunahastearren arrazoia. Nahaste honen ezaugarriak dira garrantzirik gabeko egoeren aurrean kolera erreakzioak izatea, abandonatuak izateko beldurrari sumindura eta amorruekin erantzutea, edo harreman pertsonalak etengabe apurtzea. Honek guztionek lotura afektibo desantolatuak izatera eramaten ditu pertsona hauek bizitza guztian zehar, oso sutsuak, baina laburrak. Hau da, "analfabeto emozionalak" dira, gauzak ondo egiten ez dakitenak.

“ Pertsona batzuk ez dakite erabaki egokiak hartzen ez dutelako izan lotura segurua bermatzen zuen figura ”

Hamburguesería
TITANIC



*Pintxo dastaketa
poteoan*

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83

ARRIETA CORDEVI

Etxetresna elektrikoak,
telebistak,
musika-ekipoak...

...prezio eta kalitate
ezin hobean.

VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA



Goienkale kalea (Ermua)
Tel: 943 172 454

sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

Komunitateak

San Pelayo

Aholkularitza
juridikoa

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua



Udal Euskaltegia

Teresa Murga Eraikina
Goienkale z/g 2. solairua
ERMUA • 943 170 925

ermukoudaleuskaltegia@gmail.com



FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOIA
INPRIMAKETAK KAMISSETATAN

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

Y E S E N I A L E I R O

- Haurtzaroan pentsatzean, zer datorkizu gogora?

Amama. Altxor bat zen, alde neukan beti... Alzheimerraz gaixotu zen, eta nik zaindu nuen, 15 urte nituela. 17 nituenean zendu zen.

- Eta gaztaroa, asko aldatu da gaur egungoarekin alde-erata?

Bai, gaur egun gazteak mugikorretara eta kontsoletara konektatuta bizi dira. Ez dakite zer den kuadrillarekin irteeta...

- Zer dela-eta etorri zinen Galiziatik?

Lan egiteko etorri nintzen. Seme-alabak nire gurasoekin utzi nituen zazpi hilabetez: nire bizitzako hilabeterik gogorrenak. Gero seme-alabak ekarri nituen, eta Sevillan neukan mutil-laguna etorri zen. Ermuan ezkondu ginen 2018an.

- Zenbat urte dituzte zure seme-alabek...

25 urteko alaba daukat, Galizian bizi dena; eta 23 eta 13 urteko bi mutiko, nirekin bizi direnak. Gazteenak Asperger sindromea du.

- Nola bizi zenuen diagnostiko hura?

Gogorra izan zen. Ume ezberdina zela nabaritzen nuen ia hasieratik, baina eskolan ez zioten antzematen. Prozesu luzea izan zen, baina gaur egun ume zoragarria da. Ama bezala harro nago bere lorpenez.

- Zorionsua zara?

Bai, Euskal Herriak askatasuna eman dit, bizimodu bat...



Portonovon (Pontevedra) jaio zen duela 45 urte. Lau anai-arreben artean, hirugarrena. Duela 10 urte etorri zen Galiziatik Ermura. Hiru seme-alaba ditu eta ezkondua dago. Bizitzak ipinitako traben gainetik, emakume alaia eta berbatia.

Zorionsua naiz lanean, eta baloratua sentitzen naiz.

- Zer lan egin dituzu etorri zinenetik?

Matienako tailer batean 20 hilabete egon nintzen, gero hainbat enpresa eta tabernetan jardun dut, garbiketara lanetan... Laster 6 urte beteko ditut estanko batean.

- Zer da lan horretan gehien estimatzen duzuna?

Dena. Estankora datozenentzako irribarrea daukat

beti ahoan, pozik joaten naiz saltokietara egunkariak jasotzera...

- Egunerokoan, zerbaiten falta duzu?

Bai, familia handia daukat, eta harreman estua daukagu. Lehengusu-lehengusinen mahaiak faltan botatzen ditut, erromeriak...

- Hemen ere zure lekua egin duzu...

Bai, lagun gutxi izan ditut beti, eta gaur egun ere,

baina ditudanak oso lagun onak dira, senideak bezala: Amaia, Maria, Sabela... Haiekin denbora partekatzea oso garrantzitsua da niretzat.

- Zer egiten duzu aisialdian?

Ez daukat denbora asko, eta daukadan denbora guztia seme gazteari eskaintzen diot. Okin-Zuriko parkera joaten gara saskibaloian jolastera, presara edo Mañera oinez, merkataritza-guneetara...

- Zure bertute bat aipatu beharko bazenu...

Oso langilea naizela.

- Eta akatsik?

Askotan gehiegi hitz egiten dudala. Onartzen dut kostatzen zaidala kontatzen didatena gordetzea.

- Zerk eragiten dizu barrea?

Denak, bizitzak berak. Eta saiatzen naiz besteei ere barrea eragiten.

- Jatun ona zara?

Bai, dena gustatzen zait. Aukeratzekotan: Galiziatik, eltzekoa; hemendik, masailak ardotan. Oso ondo irteten zaizkit, gainera.

- Zein albiste irakurri nahiko zenuke?

Kanadan hondoratu den itsasontzi galiziarrean zihozten guztiak agertu direla, familiariek deskantsatu ahal izateko.

- Berrito jaioko bazina?

Ez nuke ezer aldatuko, fixtaren bat aldatuz gero nire seme-alabak ez zirelako existituko. Eta haiek eta senarra dira bizitzan daukadan gauzarik ederrena.

Dorleta Vidal




**SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA
DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS
ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT**

ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoak garatzen espezializatua dagoen ingeniari-tza-enpresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.



www.zermik.com

Usaetxe plaza 6-8, behea
Arrasate-Mondragon (Gipuzkoa)
Telf: 943 23 10 12



- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo onddoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

Eta asteburuetan pintxoak, afariak eta bokatak!

**Erdikokale 13
(Ermua)**

**ENKARGUAK
943 030 299**

MALLABIA 1961

Argazki hau 1961ko urriaren 7an aterata dago, Mallabiko eliza aurrean. Egun horretan ezkondu ziren Eloi Zelaieta eta Maria Luisa Txurruka. Beste bi ezkontza ere egon omen ziren egun berdinean.

Argazkian agertzen dira: Pedro Zubizarreta, Isidora Txurruka, Rosi Zelaieta, Lazaro Txurruka, Andresa Uriarte, Juan Luis Txurruka, Maria Luisa Txurruka emaztegaia, Jose Txurruka, Eva Zubizarreta, Maria Gerrickabeitia, Eloi Zelaieta senargaia, Iñake Solozabal, Dominga Uria, Sebastiana Txurruka, Josefa Gisasola, Bixente (...), Leonzio Txurruka, Ignacio Maguregi (Sestaoko abadea), Juan Bautista Uriarte "Batis", Julian Zelaieta, Juliana (...), Domingo Gisasola, Don Julian eta Don Luis abadeak, Kandida Gisasola, Damian Zelaieta, Oskar eta emaztea, Julio eta Maria Jesus, Bernardo Mendezona, Eduardo Gisasola, Estefania Gerrickabeitia, Juanita Gisasola...

* Argazkian izen-abizen batzuk falta dira. Norbaitek ezagutzen baditu, jarri harremanetan gurekin: drogeten@gmail.com).



ERMUA 1966

SEAT 600a eskura, antioju beltzak jantzi eta prest nonbaitera joateko! Ezkerretik eskumara Juanjo Telleria, Mateo Bilbao eta bolantera, Luis Mari Izagirre, handiaren handiz eta luzearen luzez ia-ia barruan kabitzen ez dela. Egoki jarrita azken honek "Largo" gatzizena!



Caperos

Pintxoak • Razioak • Kaxolak • Plater konbinatuak • Ogitartekoak
Probaleku z/g (Ermua) 699 292 043 • 636 549 154

**OSASUNA * ESTETIKA
EDERTASUNA**

Marfil

*Ile-apandegi bat
baino gehiago!!*

 **Egokitutako burua
garbitzeko konketa**

943 17 28 09 • Goienkale 12

LAN BILA

Ermuko neska euskalduna eskaintzen da umeak goizez zaintzeko. Esperientziarekin eta magistaritza ikasketekin.
© 648 62 52 09.

LAN ESKAINTZA

Kamareroa behar da Eibarko jatetxe batean mahaiak eta barra zerbitzatzeko. Esperientziarekin.
© 659 53 98 61.

IRAKASKUNTZA

Matematikako, fisikako eta kimikako klase partikularrak eskaintzen dira DBHn dauden ikasleentzat.
© 688 68 36 55.

SALEROSKETAK

Gaixoak ohetik altxatzeko garabia saltzen dut. Winnicare markakoa. Oso egoera onean. Prezioa: 300 €. Garabiarekin batera, eskaren kontrako koltxoi puzgarria oparitzen dut, motorrarekin.
© 699 24 42 13, Tere.



Otsailaren 12an
Mare, 12 urte bete dituzu, 12 urte gu pozez betetzen. Patxo erraldoia familiaren partez, jarraitu horrelakoa izaten. Zorionak eta musu asko zuretzat.



Martxoaren 1ean
Zorionak Ander!!! 9 urte txapeldun!!! Ondo pasa egune!! Muxu haaandiii bat etxeko denon partez!!! Ta egurre bizikletari!!!



Otsailaren 21ean
Zorionak Izadi!! 3 urte eder gure bizitzetan sartu zifala. Segi beti bezain alai eta irribartsu!! Maitxe maitxe.



Otsailaren 4an
Zorionaaaak Olaia zure 11. urtebetzetean. Zein azkar hazten ari zaren!! Muxu pottolo bat ama, aita eta noski, Iratiren partez. Asko maite zaitugu!



Otsailaren 15ean
Urtebete gure Mateok!!! Ilargiraino eta buelta maite zaitugu, terremoto!!! Zorionak familia osoaren partez maitia!!!



Otsailaren 8an
Zorionak Ekia!!! Segi orain arte bezala momentu guztiak topera bizitzen!!! Patxo eta besarkada pila familia guztiaren partez!!



Martxoaren 4an
Zorionak Ane, gure etxeko larrosatxoa, gurasoen eta amama-aititeren partez.



Otsailaren 19an
Zorionak Oihan! Hiru kandela zure pastelxoan, zu bai mutil handixa! Gozatu zure egunaz, txapelduna! Patxo eta besarkada erraldoi bat, Nahian partez bereziki! AMZ

Iragarkia edo zorion-agurra kaleratzeko, bidali mezua elektronikoa helbide honetara:
drogeten@gmail.com

Azken eguna: **Martxoaren 16a.**



**TXINDURRI
TALDEA
Tokian
tokiko**

PRO
arraindegia



**ITSASKIAK
ARRAIN FRESKOAK
ETA IZOZTUAK**

Zubiaurre, 21
943 17 16 96
ERMUA

Infreñu
Taberna

Kardenal Orbe plaza
943 174584
www.infretaberna.com



**MUSIKA
ESKOLA**

- Akordeoia
- Klarinetea
- Biolina
- Panderoa
- Biolontxelo
- Perkusioa
- Bonbardino
- Pianoa
- Flauta
- Saxofoia
- Kantua
- Trikitrixa
- Gitarra
- Tronboia
- Gitarra elektrikoa
- Tronpeta
- Gitarra baxua
- Txistua
- Lengoia musikala

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com

ZINEA

Hilaren 6tik 8ra:
"Libertad"

Hilaren 12tik 15era:
"Licoricce Pizza" +
"La hija oscura"

Hilaren 19tik 22ra:
"Competencia oficial" +
"Los ojos de Tammy Faye"

Hilaren 26tik 29ra:
"No mires a los ojos" +
"Coda. Los sonidos del silencio"

Ermua Antzokian.
Hainbat ordutegi.

ZINE-KLUBA

Hilak 3:
"El sastre"

Hilak 10:
"Un pequeño mundo"

Hilak 17:
Laburbira.

Hilak 24:
"No somos nada"

Hilak 31:
"Los amores de Anais"
Ermua Antzokian.
20:30ean.

UMEENTZAKO ZINEA

Hilak 6:
"Kikoriki. Deja vu"

Hilak 13:
"Ainbo" (Euskeraz)

Hilak 20:
"Súper... ¿quién?"

Hilak 27:
"Uncharted"
Ermua Antzokian.
17:00etan.

MUSIKA

Hilak 11:
Kontzertua: Travis Birds.
20:30ean.
Ermua Antzokian.
Sarrera: 12 €.

Hilak 12:
Flamenko jaialdia
(Andaluziako eguna).
16:00etan.
Antzokian. Doan.

Hilak 19:
Blues Kontzertua: Family
Folks. 20:00etan.
Lobiano Kulturgunean.
Sarrera: 10 €.

ANTZERKIA

Hilak 3:
"Degenérate mucho",
Las Xlren eskutik.
20:30ean. Ermua
Antzokian. Sarrera: 10 €.

Hilak 17:
"La Tarara",
Hika Teatroaren esku-
tik. 20:30ean. Ermua
Antzokian. Sarrera: 12 €

ERAKUSKETA

Hilaren 14tik 27ra:
Euskal komikia 1975 urteik.
18:00etatik 20:00etara.
Lobiano Kulturgunean.

UMEENTZAKO EKITALDIAK

Hilak 5:
Kontzertua: "Goazen 8.0",
Pausokaren eskutik.
16:00etan eta 18:00etan.
Antzokian. Sarrera: 6 €

Hilak 12:
Ipuin-kontaketa
ingeleseaz. 17:30ean.
Lobiano Kulturgunean.

Hilak 19:
Ipuin-kontaketa. 17:30ean.
Lobiano Kulturgunean.

Hilak 25:
Ikuskizuna: "Kuikui",
Pirritx, Porrotx eta
Marimototsen eskutik.
17:00etan eta 19:00etan.
Ermua Antzokian.
Sarrera: 6 €

BESTELAKOAK

Hilak 5:
Sagardo eguna.
12:30etatik aurrera. Orbe
kardinalaren plazan.

Hilaren 17tik 27ra:
Kazolatxoren astea.
Ermuko tabernetan.

INAUTERIAK

Otsailak 24, osteguna
Eguen zuri
17:00etan: Diskofesta:
Xaibor Dja.

Otsailak 25, ostirala
Hartza eguna
18:30ean: Kalejira
Santixapeko iturrian hasita.

Otsailak 26,
larunbata
12:30ean: Mozorro
lehiaketaren kalejira.
13:00etan: Kalejira: Irulitxa
txaranga.

17:30ean: Txokolatada.
18:00etan: Haurrentzako
dantzaldia: Azkona taldea.

19:00ean: Kalejira: Irulitxa
txaranga.

19:30ean: Haurrentzako
mozorro lehiaketa.

23:00etan: DJ Festa: Los
40.

Martxoaren 1ean,
asteartea
16:00etan: Haurrentzako
diskoteka

18:00etan: Kale ikuskizuna:
"Ulterior, bidaiari", Tiritirantes
taldea.

19:00etan: Erromeria:
Continente orkestra.

23:00etan: DJ Festa: Oihan
Vega.

Ekitaldi guztiak plazan.

Patxi López

Enter
INFORMÁTICA
SALMENTAK
IRAKASKUNTZA
ZERBITZU TEKNIKOA
VI. Mendereana 19, behea
943 17 90 37
enter@informaticaenter.com

arral
Luis Cañas
Amaren
Cair
Ehun
Txakoli Astobiza
Pazo Señorans
Cava Oriol Rossell
Cair
Casar de Burbia
Bodegas Valdemar
García de Olano
Manzanos Wines
Pernord Ricard Wines
Faustino García Martínez.
T.943176075
arral@arral97.com | Pol.Goitondo-Goikoa, Parc.7 - Pab.1 | 48269 Mallabia (Bizkaia)

Proba-Leku
Ileapaindegia - Estetika
Probaleku 3, 1A
Tel. 943 17 05 42

URRETA burdindenda
✘ Etxea ✘ Giltzak
✘ Tresneria ✘ Sarrailagintza
✘ Brikolajera ✘ Kit altzariak
✘ Errailak
Zeharkalea 8 Tel. 943 17 65 61 ERMUA

Iberikoetan
espezialistak
Mayte
VI Centenario 5 · ERMUA
943 172 412

LEIRE MAYORA
PODOLOGOA
 Erdikokale 1, 1. A
 48260 Ermua
 ☎ 943 17 47 44

irale
 Hortz Klinika
 Clínica Dental
 C/ Zeharkalea, 8
 48260 Ermua, Bizkaia
 Tel. 943 17 71 34

NEREA IÑIGUEZ
HORTZ KLINIKA

- Aho eta inplante kirurgia
- Hortzetako protesiak
- Hortz estetika
- Ortodontzia
- Odontopediatria
- Endodontzia eta odontologia kontserbadorea

Hortz klinika berri eta handitu dugu

San Inazio 4 Tel.: 943 030 512
 Ermua niklinika@gmail.com

OSASUN GIDA

IRAZ
 Odontologia
 Fisioterapia

943 578 617
 615 793 717
 www.irazuklinika.com

Zuri egokitzen den odontologia
 La odontología que se adapta a ti

SAN PELAYO
 HORTZ KLINIKA + CLÍNICA DENTAL

Dña. OLATZ GARCÍA ARREGUI D.O. 2019M

- P.A.D.I
- IMO
- SANITAS
- DENTYRED
- AZKARAN
- OCASO

☎ 943 17 04 04
 ✉ info@clnicasanpelayo.com
 📍 San Pelayo Zeharkalea 5
 48260 Ermua (Bizkaia)

Osasun Gidan agertu nahi baduzu,
 deitu 943 17 93 50 edo 688 63 28 76 telefonoetara,
 edo idatzi drogeten@gmail.com helbidera.

Une zailenetan guztiaz arduratzen gara



Valdespinako Markesa kalea, 16



Hileta zerbitzuak:

- 24 orduko hileta-zerbitzu iraunkorra.
- Agur pertsonalizatuak.
- Gestoria: azken borondateak, oinordetzak, pentsioak, aseguruak...
- Estatuko eta nazioarteko lekualdaketak.

T. 943 176 159

Ermua · Eibar · Elgoibar · Bilbo · Basauri · Galdakao · Barakaldo · Portugalete ·
Santurtzi · Leioa · Getxo · Sestao · Karrantza · Zalla · Muskiz · Balmaseda